

# Zuzenbidearen iturriak

Josemari Sarasola

Gizapedia



## Zer dira zuzenbidearen iturriak?

Ordenamendu juridiko bateko arauak sortzeko ekintza eta prozesuak dira, kontuan hartuz bereziki nork sortu eta nola gauzatzen diren, eta horien arteko lehenetasun maila. Adibidez, konstituzioa herrialde bateko zuzenbidearen iturri gorena da, legebiltzarrak eta herriak onetsi egiten dutenak.

## Iturri materialak eta formalak

- *Ikuspuntu material batetik*, zuzenbidearen iturriak arau juridikoak sortzea ekarri duten gertakari historikoak eta faktore sozialak dira, eta hortik arau horiek sortu dituzten eragileak, hala nola botere legegileak (legebiltzarrak), botere exekutiboak (gobernuak) eta herria bera.
- *Ikuspuntu formal batetik*, zuzenbidearen iturriak arauak gauzatu eta horien indarra hartzeko modua, adibidez legeak (botere legegileak sorturikoak), beste lege batzuk eta dekretuak (gobernuak ezarritakoak) eta ohitura (herriaren usadioak definitzen duena).

## Iturri zuzenak eta zeharkakoak

- **Iturri zuzenak** araua bere baitan atxikitzen duten horiek dira. Espainiako ordenamendu juridikoan, legea (zentzu zabalean), ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak dira. Nazioarteko tratatuak eta hitzarmen kolektiboak ere atal honetan barneratu behar dira.
- **Zeharkako iturriak**, araurik ematen ez dutenak dira, baina laguntzen dute arauak argitzen eta interpretatzen. Horietan jurisprudentzia eta doktrina zientifikoa sartzen dira (azken hau lege onartzen ez den arren).

## Hierarkia normatiboaren printzipioa

Zuzenbidearen iturriak hierarkoki ordenaturik daude. Adibidez, Konstituzioa gobernuek plazara dezaketen lege edo arau ororen gainetik dago.

Orokorrean, hierarkia honela ezarrita dago: legeak zentzu zabalean dira arau gorenak, bigarren mailan dago ohitura, eta azkenik zuzenbidearne printzipio orokorrak.

## Eskuduntzaren printzipioa

Espainiako Estatuak deszentralizatuta dago: estatu eta administrazio zentralak, autonomia erkidegoek, diputazioek eta udalek eskuduntza ezberdinak dituzte. Hori horrela, botere eta administrazio maila ezberdin horietatik ezartzen diren arauen arteko harremanak zehaztu egin behar dira, zuzenbidearen aplikazioa argia izango bada.

Horretarako ezartzen da eskuduntzaren printzipioa. Horren arabera, araua aplikagarria izango da, baldin eta arau hori ezarri duen botereak horretarako eskumena du. Eskuduntzari buruzko desadostasunak eta gatazkak Konstituzio Epaitegian ebazten dira, Konstituzioak ezartzen duenaren arabera.

## Legea

Zentzu zabalean, botere legegileek (legebiltzarrek, alegia) eta exekutiboek (gubernuek) jaulkitzen dituzten arau juridikoak dira. Zentzu hertsiagoan, botere legegileek soilik ezartzen dituztenak dira.

Edonola ere, lege esaten diogun arau juridiko horien baitan ere hierarkia bat dago, estatu osorako aplikagarriak diren arauetan:

- 1 Konstituzioa
- 2 Nazioarteko tratatuak
- 3 Lege organikoak eta lege arruntak, beraien arteko hierarkiarik gabe, baina aplikazio arlo ezberdinekin, legebiltzarretatik.
- 4 Lege-dekretuak eta legegintza-deketuak, gubernuetatik legebiltzarren onespenearekin.
- 5 Araudi edo erregelamenduak.